Jendaurreko informazio tramitea 2015eko azaroaren 21etik abenduaren 15ra bete da, bitarte horretan bai Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan eta bai Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgunean argitaratu baita proposamena. Tramite horretan ez da aurkeztu inolako oharrik edo alegaziorik.

El trámite de información pública ha sido evacuado en el periodo comprendido entre el 21 de noviembre y el 15 de diciembre, de 2015, siendo publicado con tal objeto en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa y en la página web del Departamento de Hacienda y Finanzas. En el citado trámite no se presentaron alegaciones u observaciones.

Bestalde, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako martxoaren 9ko 2/2015 Foru Arauak 27. artikuluan xedatutakoa betez, 2015eko azaroaren 25ean Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoari genero eraginaren ebaluazio txostena eskatu zitzaion, hain zuzen ere foru arau horren 27.2.a) artikuluan aipatutakoa, eta hori baino lehenago, Ogasun eta Finantza Departamentuko Erakundeekiko Konpromisoen Zerbitzuko Azterlanen Atalak genero eraginaren aurretiazko ebaluazio txostena prestatu zuen aipatutako 2/2015 Foru Arauak 27.2.a) artikuluan agindutakoari jarraituz. Erantsita bidaltzen da, 1. eranskin gisa, genero eraginaren aurretiazko ebaluazio txostena.

Por otra parte, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 27 de la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres, con fecha 25 de noviembre de 2015, se solicitó al Órgano para la Igualdad de Hombre y Mujeres informe sobre la evaluación de impacto en función del género a que se refiere el artículo 27.2.a) de la citada Norma Foral 2/2015, a cuyos efectos previamente la Sección de Estudios del Servicio de Compromisos Institucionales del Departamento de Hacienda y Finanzas emitió el informe de evaluación previa del impacto en función del género a que se refiere el artículo 27.2.a) de la susodicha Norma Foral 2/2015. Se adjunta como anexo 1 el referido informe de evaluación previa del impacto en función del género.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak arauzko txostena eman du 2015eko abenduaren 15ean, eta bertan adierazi du aipatutako 2/2015 Foru Arauaren 27. artikuluan xedatutakoa bete egiten dela. Aldi berean, proposatzen dira hobekuntza batzuk hizkuntzaren erabilera ez sexistaren aldetik, kontuan hartu izan

Con fecha 15 de diciembre de 2015 se ha emitido informe preceptivo del Órgano para la Igualdad de Mujeres y Hombres, en donde se declara que se ha cumplido lo dispuesto en el artículo 27 de la referida Norma Foral 2/20015, proponiendo algunas mejoras en el uso no sexista del lenguaje que han sido tenidos en cuenta en la redacción

direnak behin betiko testuaren erredakzioan. Arauzko txosten hori memori honetako II. eranskin gisa bidaltzen da.

definitiva. Se adjunta el citado informe preceptivo como anexo 2 de esta memoria.

Bestalde, proiektua Zergen Koordinazioko Organora bidali da, maiatzaren 30eko 3/1989 Legeak, Zerga Harmonizazio, Koordinazio eta Lankidetzari buruzkoak, 11. artikuluan xedatutakoa betez. Orobat, Ekonomia Itunean arautūtako gaietan eragina duenez, proiektua Estatuko Administraziora ere bidali da, jakinaren gainean egon dadin eta Itunean aurreikusitakoarekin bat datorren ebalua dezan (64.a) artikulua).

Por otro lado, se ha dado traslado del proyecto al Órgano de Coordinación Tributaria, en cumplimiento de lo dispuesto en artículo 11 de la Ley 3/1989, de 30 de mayo, de Armonización, Coordinación y Colaboración Fiscal, y a la Administración del Estado para su conocimiento por tener incidencia en materia objeto de regulación en el Concierto Económico, a los efectos de la evaluación de la adecuación de dicha propuesta a lo previsto en el referido Concierto (artículo 64.a).

Tramite horiek eginda, proposatutako testua Diputatuaren Kontseiluari aurkezten zaio, onartu dezan.

Evacuados dichos trámites, se somete el texto propuesto al Consejo de Gobierno Foral.

PROPOSAMENAREN ERAGIN EKONOMIKO-FINANTZARIOA.

IMPACTO ECONÓMICO-FINANCIERO DE LA PROPUESTA.

Proiektuaren eragin ekonomiko-finantzarioari dagokionez, memoria honekin batera 3. eranskin gisa aurkezten da Ogasun eta Finantza Departamentuko Erakundeekiko Konpromisoen Zerbitzuak Azterlanen Atalaren bitartez prestatu duen txostena.

En relación al impacto económico-financiero del proyecto, se adjunta informe, que se incluye como anexo 3 de la presente memoria, elaborado por la Sección de Estudios del Servicio de Compromisos Institucionales del Departamento de Hacienda y Finanzas.

Donostia, 2015eko abenduaren 18a.

San Sebastian, a 18 de diciembre de 2015.

Sin./Fdo.: Luis Ignacio Bernarás Iturrioz
ARAUGINTZAKO ATAL BURUA / JEFE DE SECCIÓN DE DESARROLLO NORMATIVO

# 1. ERANSKINA

**GENERO ERAGINAREN ALDEZ AURREKO EBALUAZIO TXOSTENA, ETA EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ORGANORA IGORRI IZANAREN FROGAGIRIA**

# ANEXO 1

**INFORME DE EVALUACIÓN PREVIA DE GÉNERO Y SU ENVÍO AL ÓRGANO DE IGUALDAD PARA MUJERES Y HOMBRES**

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza Departamentua
Departamento de Hacienda y Finanzas

# Aurretiazko genero eraginaren txostena

**Foru Arau aurreproiektua, Zergen Foru Arau Orokorra aldatzen duena Foru Ogasunarekin zerga zorrak edo zehapenak dituztenen zerrendak zirkunstantzia jakin batzuetan aldizka argitaratzea ezartzeko**

## 1. Sarrera

Txosten honen helburua da 2/2015 Foru Arauak, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, bere 27. artikuluan ezartzen duena betetzea. Hain zuzen ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren foru arauen aurreproiektuak zein izaera orokorreko xedapen proiektuak osatu

# Informe de evaluación previa de impacto de género

**Anteproyecto de Norma Foral por la que se modifica la Norma Foral General Tributaria para incluir la publicación periódica de listados comprensivos de deudores a la Hacienda Foral por deudas o sanciones tributarias en los que concurran determinadas circunstancias.**

## 1. Introducción

Este informe tiene como objetivo dar cumplimiento a lo establecido el artículo 27 de la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres. Según el mismo, los anteproyectos de Norma Foral y los proyectos de disposiciones de carácter general de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en su proceso de

eta izapidetzeko orduan, generoaren eraginaren aldez aurreko ebaluazioa aurkeztu beharko da haiei atxikita.

elaboración y tramitación, se acompañarán del correspondiente informe de evaluación previa de impacto de género.

Genero eraginaren aldez aurretiko ebaluazio txostenak atal hauek eduki beharko ditu:

Ese informe de evaluación previa del impacto en función del género deberá de constar de las siguientes partes:

- arau proiektuaren edo izaera orokorreko xedapenaren deskribapen orokorra.
- genero eraginaren aldez aurreko ebaluazioa.
- atzemandako ezberdintasunak ezabatzeko neurriak, baita, egindako genero eraginaren ebaluazioaren arabera, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko neurriak ere.

- la descripción general del proyecto de norma o de disposición de carácter general.
- la evaluación previa del impacto en función del género.
- las medidas para eliminar las desigualdades identificadas y promover la igualdad de mujeres y hombres en función de la evaluación de impacto de género realizada.

## 2. Arau aldaketak

Ogasun Publikoak zerga iruzurraren aurka egiten duen borrokan beharrezkoak dira zuzenean jokaeren errepresiora zuzendutako neurriez gain, zerga obligazioak borondatez betetzen lagundu dezaketen beste era bateko jarduketak eta tresna prebentibo eta hezigarriak.

Neurri horietako bat da, eta iadanik gure inguruko beste herrialde batzuetan existitzen dena, Herri Ogasunarekin zorrak edo zerga zehapenak dituztenen zordunen zerrendak aldian behin argitaratzea, zirkunstantzia jakin batzuk betetzen direnean.

Erregulazio horrek duen helburuari erreparatuta, eta aintzat hartuta hiru Lurralde Historikoak bat datozela esatean komeni dela zerga ordenamenduan antzeko erregulazio bat izatea ondorioak ahalik eta azkarren aplikatzeko, araugintzako

## 2. Modificaciones normativas

La lucha contra el fraude fiscal por parte de la Hacienda Pública requiere además de medidas directas dirigidas a la represión de conductas, otro tipo de actuaciones e instrumentos preventivos y educativos que coadyuven al cumplimiento voluntario de los deberes tributarios.

Una de esa medidas, que ya existe en paises de nuestrro entorno, es la publicación periódica de listados de personas deudoras a la Hacienda Pública, por deudas o sanciones tributarias en los que concurran determinadas circunstancias.

Atendiendo a la finalidad de dicha regulación y al hecho de que los tres Territorios Históricos están de acuerdo en la conveniencia de adoptar una regulación similar en el ordenamiento tributario con efectos lo más inmediato posibles, se

prozedura hasi beharra dago aipatutako erregulazioa Zergen Foru Arau Orokorrean sartzeko.

considera procedente iniciar un procedimiento normativo para incluir la referida regulación en la Norma Foral General Tributaria.

Proiektuak proposatzen du Foru Ogasunarekin zerga zorrak edo zehapenak dituztenen zerrendak aldizka argitaratzea, zirkunstantzia hauek betetzen direnean:

El proyecto plantea la publicación periódica de listados comprensivos de deudores a la Hacienda Foral por deudas o sanciones tributarias cuando concurran las siguientes circunstancias:

a) Ordaindu gabeko zerga zorren eta zehapenen zenbateko osoa 1.000.000 euro baino handiagoa denean.

a) Que el importe total de las deudas y sanciones tributarias pendientes de ingreso supere el importe de 1.000.000 de euros.

b) Borondatez ordaintzeko epea behin igarota, zerga zor edo zehapen horiek ordaindu ez direnean.

b) Que dichas deudas o sanciones tributarias no hubiesen sido pagadas transcurrido el plazo de ingreso en periodo voluntario.

Artikulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, kanpoan geratzen dira geroratuta, zatikatuta edo etenda dauden zerga zorrak eta zehapenak.

A efectos de lo dispuesto en este artículo no se incluirán aquellas deudas y sanciones tributarias que se encuentren aplazadas, fraccionadas o suspendidas.

Zerrendetan informazio hau jaso beharko da:

a) Zordunen identifikazioa, jarraian zehazten den eran:

- Pertsona fisikoak: izena, abizenak, eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

- Pertsona juridikoak eta foru arau honen 35.3 artikuluko entitateak: sozietate izena, osorik idatzita, eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

b) Argitalpenaren ondorioetarako aintzat hartu diren zorren eta zehapenen baterako zenbatekoa.

En dichos listados se incluirá la siguiente información:

a) La identificación de los deudores conforme al siguiente detalle:

- Personas físicas: nombre apellidos y Número de Identificación Fiscal.

- Personas jurídicas y entidades del artículo 35.3 de esta Norma Foral: razón o denominación social completa y Número de Identificación Fiscal.

b) El importe conjunto de las deudas y sanciones pendientes de pago tenidas en cuenta a efectos de la publicación.

# 3. Genero eragina

## 3.1. Genero egokitasuna

Proiektuaren amaierako hartzaileak pertsona fisikoak, pertsona juridikoak eta Zergen Foru Arau Orokorraren 35.3 artikuluan ezarritako nortasun juridikorik gabeko entitateak dira

Pertsona juridikoak agente ekonomiko benetan garrantzitsuak dira gure lurraldeko sare sozio-ekonomikoan, erabaki garrantzitsuak hartzen dituztelako inbertsio, enplegu sorrera, eta abarri dagokionez.... Hau da, eragina dute pertsonen harreman sozialekin zuzenean lotuta dauden gaietan, haien bizi baldintzetan eta baliabideen eskuragarritasunean (lan baldintzak, soldatak, ingurune fisikoa...).

Hortaz, eta nola xedapen normatiboak eragina duen emakumeek eta gizonek baliabideak

# 3. Impacto de género

## 3.1. Pertinencia de género

El grupo destinatario final del proyecto son tanto las personas físicas como las personas jurídicas y las entidades sin personalidad jurídica a las que se refiere el artículo 35.3 de la Norma Foral General Tributaria.

Las personas jurídicas son agentes económicos que tienen una especial relevancia dentro del entramado social y económico de nuestro territorio, ya que los mismos son importantes centros de decisión respecto a inversiones, creación de empleo... Es decir, influyen en cuestiones directamente vinculadas a las relaciones sociales de las personas, sus condiciones de vida y acceso a los recursos (condiciones laborales, salarios, entorno físico...).

Por tanto, y como la disposición normativa afecta al acceso y/o control de los recursos por parte de

eskuratzeko edota kontrolatzeko moduan, ondorioztatzen da egokia dela arau proiektua genero ikuspegitik aztertzea.

### 3.2. Genero eraginaren balorazioa

#### 3.2.1. Hasierako egoera

Emakumeen batez besteko errenta 11.857 eurokoa da Gipuzkoan eta gizonezkoena, berriz, 23.224 eurokoa (%48,9ko arraila). Laneko errentetan aldea edo desberdintasuna %47koa da (7.194 euro eta 15.320 euro, hurrenez hurren, emakumeen enplegua eskuratzeko aukera murritzagoak eta lan diskriminazioa direla medio). Gipuzkoan emakumeen herenak (%32,77k) ez du 1.500 eurorik ere irabazten urtean, gizonezkoetan talde hori % 12,85ekoa den bitartean. Emakumeen erdia (%53,3) urtean 9.000 eurotik behera jasotzen dituen taldean

las mujeres y los hombres, se determina que es pertinente el análisis de género del proyecto normativo.

### 3.2. Valoración del impacto de género

#### 3.2.1. Situación de partida

La renta media de las mujeres en Gipuzkoa es de 11.857 euros y la de los hombres de 23.224 euros (brecha del 48,9%). En las rentas procedentes del trabajo la diferencia es del 47% (7.194 euros frente a 15.320, dado el menor acceso a empleo y la discriminación laboral). Un tercio de las mujeres en Gipuzkoa (32,77%) no ganan ni 1.500 euros al año frente a 12,85% hombres. La mitad (53,3%) de las mujeres se concentra en ingresos inferiores a 9.000 euros anuales frente al 21,97% de los hombres.

kontzentratzen da, sarrera horiek dituzten gizonezkoak %21,97 besterik ez diren bitartean.

Lan merkatuari dagokionez, nahiz eta gizonezkoen langabezia zifrak gora egitearen ondorioz langabeziako tasetan genero arraila murriztu egin den, krisi ekonomikoaren eraginez langabeziak gehiago erasaten die oraindik ere emakumeei gizonezkoei baino. Horrela, EUSTATen datuen arabera (2014ko abendua), emakumeen okupazio tasa %44,50ekoa da EAEn, gizonezkoena %54,10ekoa den bitartean. Eta langabezia egoeran dagoen biztanleriari dagokionez, emakumeak dira kolektibo horren %52,80 Gipuzkoan.

En lo referente al mercado de trabajo, a pesar de que la brecha de género en las tasas de paro se ha reducido como resultado del aumento del desempleo en los hombres, a consecuencia de la crisis económica, el paro sigue afectando más a las mujeres que a los hombres. Así, y según los datos del EUSTAT, en diciembre 2014, la tasa de ocupación de las mujeres en la CAE es de 44,50% frente al 54,10% de los hombres. Respecto a la población en situación de desempleo, las mujeres representan en Gipuzkoa el 52,80% de dicho colectivo.

Era berean, emakumeak dira nagusi diru-sarrerak bermatzeko errentan titularrak direnen artean. Horrela, eta Lanbideko datuen arabera, Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (SBE) jasotzen duten pertsonen %57,63 emakumeak dira Gipuzkoan.

Del mismo modo, las mujeres son mayoría en el colectivo de personas titulares de la renta de garantía de ingresos. Así, y según los datos de Lanbide, el 57,63% de las personas receptora de la Renta de Garantía de Ingresos (RGI) en Gipuzkoa son mujeres.

Nabarmentzeko modukoa da pobrezia indizeak handiagoak direla emakumea pertsona nagusia den etxeetan. Horrela, "Pobreziaren eta gizarte-desberdintasunen inkesta, 2012" argitalpenaren arabera, pobrezia eta prekaritatea tradizioz arriskukoak diren taldeetan pilatzen dira gero eta gehiago. Bide horretatik, pobrezia modu desberdinek sexuaren arabera duten intzidentziaren konparaziozko azterketak egoera okerragoa erakusten du kasu guztietan emakumeak buru dituzten etxeetan. Pobreziaren intzidentzia erreala hiru aldiz handiagoa da EAEn, hain zuzen ere, emakume baten ardurapean dauden etxeetan (%11,1 eta %3,7,hurrenez hurren).

Cabe destacar, que los índices de pobreza son superiores en los hogares cuya persona principal es una mujer. Según la "Encuesta de pobreza y desigualdades sociales 2012" la pobreza y la precariedad se concentran cada vez más en los grupos tradicionalmente de riesgo. Así, el análisis de la incidencia de las distintas formas de pobreza en función del sexo revela en todos los casos la peor situación comparada de los hogares encabezados por mujeres. La incidencia de la pobreza real en la CAE resulta de hecho tres veces superior en hogares encabezados por una mujer (11,1% frente a 3,7%).

2012ko "Pobreziari eta bazterketa sozialari buruzko inkesta" lanak eskainitako datuen arabera, emakume bat buru duten etxeetako pobreziaren intzidentzia askoz handiagoa da Gipuzkoan ere, pertsona nagusi gisa gizonezko bat

En Gipuzkoa, y según los datos de la "Encuesta de pobreza y exclusión social de Gipuzkoa" (2012), la incidencia de la pobreza en aquellos hogares que están encabezados por una mujer es también muy superior a la correspondiente a los hogares que

duten etxeekin konparatuz gero. Izan ere, emakume bat buru duten etxeak etxe guztien %29,6 besterik ez diren arren, pobrezia erlatiboko egoeran aurkitzen diren etxe guztien %40,2 eta bazterketa sozial larri nahiz konpentsatuko egoeran aurkitzen diren etxeen %46 izatera iristen dira.

cuentan con un hombre como persona principal. De hecho, aunque los hogares encabezados por mujeres representan solo el 29,6% de los hogares, suponen el 40,2% de todos los hogares en situación de pobreza relativa y el 46% de los que se encuentran en situación de exclusión severa o compensada.

### 3.2.2. Generoaren ikuspuntutik aintzat hartu beharreko neurrien identifikazioa

### 3.2.2 Identificación de medidas a considerar desde el punto de vista de género

Proiektu honek jasotzen duen neurri bakarra da, Foru Ogasunarekin zerga zorrak edo zehapenak dituztenen zerrendak aldizka argitaratzea, zirkunstantzia batzuk betetzen direnean.

La única medida que recoge este proyecto es la publicación periódica de listados comprensivos de deudores a la Hacienda Foral por deudas o sanciones tributarias cuando concurran una serie de circunstancias.

### 3.2.3. Genero eraginaren balorazioa

2015eko urriaren 31n eginiko balizko zerrendaren lehen azterketa batek erakusten du, %78a pertsona juridikoak direla eta beste %18 pertsona fisikoak (%17 gizonezkoak eta %1 emakumezkoak).

Hasiera batean, badirudi zordunen zerrenda horien argitaratzea arautzeak ez duela inongo eragin zuzenik emakumezkoen eta gizonezkoen egoeran gain.

Beraz, esan dezakegu proiektuak ez dakarrela aldaketa sustantiborik genero desberdintasunaren inguruan gaur dagoen egoera aldarazteko.

Halere, kontuan izanda bere xedea iruzurraren aurka borrokan jardutea

### 3.2.3 Valoración del impacto de género

Un primer análisis del posible listado de deudoras y deudores a 31 de octubre de 2015 pone de manifiesto que el 78% son personas jurídicas y el 18% restante personas físicas (17% son hombres y el 1% mujeres).

En un principio, regular la publicación de esas listas de deudores, no parece que tenga ningún efecto directo en la situación de mujeres y hombres.

Por tanto, podemos considerar que el proyecto no incorpora cambios sustantivos que puedan contribuir a una modificación de la situación actual respecto de las desigualdades de género.

Si bien, y teniendo en cuenta que el objetivo de dicha medida es luchar

dela, proposatutako aldaketak eraginkorragoak egingo ditu jarduketa tributarioak, eta horiek, azkenean, positiboki eragingo dute zerga sistemaren funtzionamendu orokorrean.

contra el fraude fiscal, la modificación propuesta provocará una mayor eficacia de las actuaciones tributarias, que al final repercutirán en un mejor funcionamiento del sistema tributario en general.

Azkenik, eta hizkuntzaren erabilera sexistari dagokionez:

- gaztelerazko bertsioan "listados de deudores" terminoa erabili da eta ez, esaterako, "listados de personas deudoras" , horrela bere baitan sartzen direlako Zergen Foru Arau Orokorraren 35.3 artikuluan ezarritako nortasun juridikorik gabeko entitateak. Izan ere, beraiek ezin dira "personas" terminoaren barruan bildu.

- proiektuaren gainerako terminoak egokitu egin dira. Halere, eta

Finalmente y respecto al uso sexista del lenguaje:

- en la versión de castellano se ha utilizado el término "listados de deudores" y no, por ejemplo, "listados de personas deudoras" para poder incluir en el mismo a las entidades sin personalidad jurídica a las que se refiere el artículo 35.3 de la Norma Foral General Tributaria. Ya que las mismas no pueden englobarse en el término "personas".

- se ha procedido a adaptar el resto de términos del proyecto, si

segurtasun juridikoa dela-eta, badira termino batzuk aldatu ez direnak. Alde batetik, Ekonomi Ituanren 3. artikuluak ezarritako harmonizazio arauak direla-eta, Zergei buruzko Lege Orokorrak ezarritako terminologia eta kontzeptu berean errespetatu behar direnak. Eta bestalde, ordenamendu juridikoko beste arau batzuetan espresuki zehaztuta daudelako errespetatu behar direnak.

bien, y por seguridad jurídica, no se han modificado ni aquellos términos que por las reglas de armonización establecidas en el artículo 3 del Concierto Económico, deben respetarse en la misma terminología y conceptos que los establecidos en la Ley General Tributaria, ni aquellos otros que deban respetarse por estar expresamente definidos en otras normas del ordenamiento jurídico.

Donostia, 2015eko azaroaren 25a

San Sebastián, a 25 de noviembre de 2015

**Sin./Fir.: AZTERLANETAKO ATALBURUA/ JEFE SECCIÓN DE ESTUDIOS**

# 2. ERANSKINA

## GENERO ERAGINAREN ARAUZKO TXOSTENA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ORGANOAK EGINA ETA DEPARTAMENDU HONETARA IGORRI IZANAREN FROGAGIRIA

# ANEXO 2

## INFORME PRECEPTIVO DE GÉNERO EMITIDO POR EL ÓRGANO DE IGUALDAD PARA MUJERES Y HOMBRES Y SU ENVÍO A ESTE DEPARTAMENTO

IRTEERA - SALIDA
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Diputatu Nagusiaren Alorra
Área del Diputado General
2015 ABE. DIC. 15
Zk. / N.º 2202

**ZORRAK EDO ZERGA ISUNAK IZATEAGATIK FORU OGASUNAREN ZORDUN DIRENEN ZERRENDAK, HAINBAT INGURUABAR GERTATZEN DIRENEAN, ALDIAN BEHIN ARGITARATU AHAL IZATEKO ZERGEN FORU ARAU OROKORRA ALDATZEN DUEN FORU ARAUAREN AURREPROIEKTUARI DAGOKION GENERO ERAGINAREN EBALUAZIOA EGIAZTATZEKO ARAUZKO TXOSTENA.**

---

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuaren eskariz egin da txosten hau, 2005eko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 70. artikuluan eta 2015eko martxoaren 9ko 2/2015 Foru Arauak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, 27. artikuluan xedatutakoa betetzeko asmoz.

Zehazki, txostenaren helburua da, batetik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak egiaztatzea zuzen aplikatu den ala ez 2/2015 Foru Arauko 27 b) artikuluan eta 2011ko ekainaren 21eko Diputatuen Kontseiluaren erabakiz onartutako Gipuzkoako Foru Aldundiko organoen izaera orokorreko xedapenen genero eragina aurre ebaluatzeko txostenak egiteko jarraibideak izeneko dokumentuan xedatutakoa, eta, bestetik, zentzu horretan hobetzeko proposamenak egitea.

2015eko azaroaren 25ean, genero eraginaren aurre ebaluazioa egiaztatzeko txostena eskatu zuen Ogasun eta Finantza Departamentuak, goian aipatutako proiektuaren inguruan. Foru arau proiektu horren xedea da Zergen Foru Arau Orokorrean jasotzea zerga isunak edo zorrak direla-eta Foru Ogasunaren zordun diren pertsona fisiko nahiz juridikoen eta entitateen zerrendak aldian behin argitaratzeko araudia, baldin eta hainbat inguruabar gertatzen badira.

## EGIAZTAPENA

Genero eraginari buruz aurkeztutako ebaluazio txostenak modu zuzenean identifikatzen du esku artean daukagun foru dekretu proiektuaren genero pertinentzia, emakumeei eta gizonei eragiten baitie, pertsona fisiko eta juridikoei zuzentzen zaielako dekretua; eta, gainera, eragin zuzena duelako baliabideak eskuratu edota kontrolatzeko moduan.

Proiektuaren genero pertinentzia zehaztu ondoren, genero eraginaren aurre ebaluazioa egiaztatzeko txostenak **aztertzen ditu** ekonomia esparruan emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasunak, eta hainbat datu azaltzen ditu alor hauei dagokienez: errentaren banaketa, okupazio eta langabezia tasak, diru sarrerak bermatzeko laguntza ekonomikoen jasotzaileak, eta Euskal Autonomia Erkidegoan nahiz Gipuzkoan dauden pobrezia indizeak. Esan beharra dago aurkezten diren datuak 2012an egindako "Gipuzkoako pobreziari eta gizarte bazterkeriari buruzko galdeketa"ri dagozkionak direla; nolanahi ere, dagoeneko argitaratuta dago 2014ko galdeketaren emaitzen aurrerapen bat, datu eguneratuak dituena.

Horrez gain, eta Foru Arauaren aurreproiektuak jasotzen duen neurri bakarrari dagokionez –Foru Ogasunaren zordun diren pertsona fisiko zein juridikoen eta entitateen aldian behingo argitalpena-, txostenak desberdintasun egoera bat identifikatzen du zordun diren pertsona fisikoei dagokienez. Hala, txostenetik ondorioztatzen da ezen, 2015eko urriaren 31n, zerrenda horretan agertzeko ezarritako eskakizunak betetzen zituzten pertsonak ondorengo eran banatzen zirela: % 94,44 gizonak, eta % 5,55 emakumeak.

Azkenik, eta **genero eraginaren balorazioari** dagokionez, txostenak zehazten du ez dirudiela aurreproiektuak inolako eraginik duenik emakumeen eta gizonen egoeran, pertsona edo entitate zordunen zerrenden argitalpena arautzera mugatzen baita.

### *ONDORIOAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK*

Azaldutako guztia kontuan hartuta eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2015eko martxoaren 9ko 2/2015 Foru Arauak 27.2.b) artikuluan xedatutakoa betez, egiaztatzen da zorrak edo zerga isunak izateagatik Foru Ogasunaren zordun direnen zerrendak, hainbat inguruabar gertatzen direnean, aldian behin argitaratu ahal izateko Zergen Foru Arau Orokorra aldatzen duen foru arauaren aurreproiektua sustatzen duen departamentuak **zuzen ezarri duela** 2/2015 Foru Arauak 27. artikuluan xedatutakoa.

Alabaina, araua sustatu duen departamentuak eragindako pertsona fisikoen sexu banaketari buruz emandako datuak kontuan hartuta, **proposamen bat** egin behar da Foru Arauaren aurreproiektuaren edukia sakonago aztertu ahal izateko.

Hain zuzen ere, oso interesgarria izango litzateke egiaztatzea genero alborapen hori bera gertatzen ote den pertsona juridikoen eta beste entitate batzuen zorrari dagokionez. Horretarako, ahal izanez gero, sexuaren arabera banatutako datuak bildu

beharko lirateke zordun diren entitate mota horien titulartasunari buruz, zorraren zenbatekoari eta banaketari buruz, eta baita ere zor maila txikiagoetan gerta litezkeen genero alborapenei buruz.

Datu horiek guztiak oinarritzat hartu ahal izango lirateke zorraren eta zerga iruzurraren genero irakurketa bat egiteko. Zordun diren pertsona fisiko eta juridikoen eta entitateen zerrenden argitalpenak genero eraginik ez izan arren, zorraren eta zerga iruzurraren balizko genero alborapenak identifikatzea eta ezagutzea lagungarria izan daiteke hausnarketa bat egiteko eta etorkizunean beste neurri batzuk hartzeko.

Azkenik, hizkuntzari dagokionez, eta Ogasun eta Finantza Departamentuak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak, segurtasun juridikoari begira, ez aldatzea erabaki zituzten terminoak salbuetsita, ikusi da aurreproiektuaren testu osoan zehar, gaztelaniaz, "deudor" terminoa erabiltzen dela, hain zuzen ere maskulino generikoa.

Txostenean argudiatzen da termino hori erabiltzen dela pertsona fisiko edo juridiko ez diren entitate zergadunak ere adiera horretan sartzeko. Nolanahi ere, eta **hizkuntzaren erabilera ez sexistaren** ikuspuntutik, badira beste formula batzuk arauak jasotzen dituen egoera ezberdinetara ederki egokitzen direnak, hala nola "personas físicas o jurídicas y entidades deudoras" esapidea.

Era berean, foru arau proiektuaren 5. artikuluan, gaztelaniaz, "Director General de Hacienda" esaten da. Horren ordez proposatzen da "el Director o Directora General de Hacienda" erabiltzea, 4. artikuluan "diputada o diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas" esapidearen kasuan egin den bezala.

Donostia, 2015eko abenduaren 11

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputatu Nagusiaren Alorra
Área del Diputado General
Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa
Órgano para la Igualdad de Mujeres y Hombres

Sin.: Itziar Amezaga Saez
Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoko teknikaria

# INFORME PRECEPTIVO DE VERIFICACIÓN DE LA EVALUACIÓN DE IMPACTO DE GÉNERO RELATIVO AL ANTEPROYECTO DE NORMA FORAL POR LA QUE SE MODIFICA LA NORMA FORAL GENERAL TRIBUTARIA PARA INCLUIR LA PUBLICACION PERIODICA DE LISTADOS COMPRENSIVOS DE DEUDORES A LA HACIENDA FORAL POR DEUDAS O SANCIONES TRIBUTARIAS EN LOS QUE CONCURRAN DETERMINADAS CIRCUNSTANCIAS

---

Se emite el presente informe a solicitud del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa a fin de dar cumplimiento a lo que dispone el artículo 70 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa y el artículo 27 de la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la Igualdad de mujeres y hombres.

En concreto, el informe tiene por objeto verificar la correcta aplicación por parte del Órgano para la Igualdad de Mujeres y Hombres de lo dispuesto en el artículo 27 b) de la Norma Foral 2/2015 y en las Directrices para la elaboración de Informes de Evaluación Previa del Impacto de Género de las disposiciones de carácter general de la Diputación Foral de Gipuzkoa, aprobadas por Acuerdo de Consejo de Gobierno Foral el 21 de junio de 2011, y realizar propuestas de mejora en tal sentido.

Con fecha del 25 de noviembre de 2015 se efectúa solicitud de informe de verificación de la evaluación previa de impacto de género por parte del Departamento Hacienda y Finanzas sobre el proyecto arriba mencionado. Dicho proyecto de norma foral tiene por objeto la inclusión en la Norma Foral Tributaria la regulación de la publicación periódica de listados comprensivos de personas físicas o jurídicas y entidades deudoras a la Hacienda Foral por deudas o sanciones tributarias cuando concurran determinadas circunstancias.

## VERIFICACIÓN

El informe de evaluación de impacto de género presentado **identifica acertadamente la pertinencia al género** del proyecto de decreto foral que nos ocupa, ya que afecta a mujeres y hombres, al ser personas físicas y jurídicas sus destinatarias finales, y afectar, además, al acceso y/o control de los recursos.

Tras determinar la pertinencia al género del proyecto, el informe de evaluación previa del impacto de género **realiza un análisis** de las desigualdades existentes entre mujeres y hombres en el ámbito económico, aportando datos sobre distribución de la renta, tasas de ocupación y de desempleo, personas perceptoras de RGI, así como de índices de pobreza, en la CAE y en Gipuzkoa. Señalar que se aportan datos de la "Encuesta de pobreza y exclusión social de Gipuzkoa" de 2012, y ya está publicado un avance de los resultados de la encuesta de 2014, con datos actualizados.

Además, y en relación con la única medida que recoge el anteproyecto de Norma Foral -la publicación periódica de listados de personas físicas o jurídicas y entidades deudoras a la Hacienda Foral -,. el informe identifica una situación de desigualdad en relación a las personas físicas deudoras. Así, del informe se deriva que con fecha 31 de octubre de 2015, las personas que cumplían los requisitos establecidos para figurar en dicha lista se distribuía de la siguiente forma: el 94,44% eran hombres y el 5,55% mujeres.

Por último, y en cuanto a la **valoración del impacto de género,** el informe establece que, dado que el anteproyecto no hace sino regular la publicación de las listas de personas o entidades deudoras, no parece que tenga ningún efecto directo en la situación de mujeres y hombres.

## *CONCLUSIÓN Y PROPUESTAS DE MEJORA*

A tenor de todo lo expuesto y en cumplimiento del artículo 27.2.b) de la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, se verifica que el departamento promotor del proyecto de Norma Foral por la que se modifica la Norma Foral General tributaria para incluir la publicación periódica de listados comprensivos de personas físicas o jurídicas y entidades deudoras a la Hacienda Foral por deudas o sanciones tributarias en los que concurran determinadas circunstancias ha **aplicado correctamente** lo dispuesto en el artículo 27 de la Norma Foral 2/2015.

Sin embargo, y a tenor de los datos que el departamento promotor de la norma aporta acerca de la distribución por sexo de personas físicas afectadas, cabe realizar una **propuesta** que permita analizar más en profundidad el contenido inspirador del anteproyecto de Norma Foral.

De hecho, sería muy interesante comprobar si este mismo sesgo de género se produce respecto de la deuda de las personas jurídicas y otras entidades. Para ello habría que recoger, si fuera posible, datos desagregados por sexo sobre la titularidad

de este tipo de entidades deudoras, así como sobre el importe de la deuda y su distribución e incluso sobre posibles sesgos de género en niveles menos elevados de deuda.

Todos estos datos supondrían una base sobre la que poder realizar una lectura en clave de género de la deuda y el fraude fiscal. Aunque la publicación de los listados de personas físicas y jurídicas y entidades deudoras, en sí misma, no tenga impacto de género, la identificación y conocimiento de los posibles sesgos de género en la deuda y fraude fiscal, puede servir de base para la reflexión y podría ser útil de cara a la elaboración de otras medidas en el futuro.

Finalmente, y en relación con el lenguaje, y al margen de los términos que el Departamento de Hacienda y Finanzas y el Órgano para la Igualdad de mujeres y hombres de la Diputación Foral de Gipuzkoa acordaron, por seguridad jurídica, no modificar, se han identificado que a lo largo del todo el texto del anteproyecto se utiliza el término "deudor", que es un masculino genérico,

En el informe se argumenta su utilización para incluir a las entidades que, no siendo personas físicas ni jurídicas, son obligadas tributarias. Sin embargo, y desde el punto de vista del **uso no sexista del lenguaje**, existen fórmulas que se adecuan perfectamente a las diferentes situaciones que la norma recoge como, por ejemplo, "personas físicas o jurídicas y entidades deudoras".

Igualmente, en el artículo 5 del presente proyecto de norma se menciona al "Director General de Hacienda". Se propone sustituirlo por "el Director o Directora General de Hacienda", tal como se ha hecho con "diputada o diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas" en el artículo 4.

En Donostia, a 11 de diciembre de 2015

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputatu Nagusiaren Alorra
Área del Diputado General
Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa
Órgano para la Igualdad de Mujeres y Hombres

Fdo: Itziar Amezaga Saez
Técnica del Órgano para la Igualdad de Mujeres y Hombres

# 3. ERANSKINA

## PROIEKTUAREN MEMORIA EKONOMIKOA

# ANEXO 3

## MEMORIA ECONÓMICA DEL PROYECTO

# Zerga-bilketa eraginaren txosten ekonomikoa

# Memoria económica de impacto recaudatorio

